# XEDAPEN OROKORRAK

## HEZKUNTZA SAILA

## 1503

*EBAZPENA, 2020ko martxoaren 2koa, Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, zeinen bidez aldatzen baita Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko Aginduaren III. eranskina «Titulazioen eta espezialitateen taula»; agindu horren bidez onartu zen Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko herri-ikastetxeetan egon daitezkeen aldi baterako irakasleen beharrak estaltzeko hautagaien zerrenda kudeatzeko araudia.*

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko Aginduaren bidez (EHAA, 2012-09-11koa) onartu zen Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko herri-ikastetxeetan egon daitezkeen aldi baterako irakasleen beharrak estaltzeko hautagaien zerrenda kudeatzeko araudia; II. eranskinean, Espezialitateen eta Irakasgaien zerrenda biltzen da, eta III. eranskinean, irakaskuntza-maila ezberdinetan espezialitateen zerrendetan sartzea ahalbidetzen duten titulazioen taulak.

Agindu horren Azken Xedapenetako Bigarrenaren bitartez, Langileak Kudeatzeko zuzendaritzari gaitasuna ematen zaio, premia badago eta dagokion ebazpenaren bidez, ordezkaritza sindikalarekin dagokion negoziazioa egin ondoren, ikasturtean zehar eta bereziki birbarematze-prozesu bakoitza hasi aurretik, taulan jasotako espezialitateren bat emateko gaitzen duten titulazio berriak sartzeko, edo lehendik daudenak aldatzeko, akatsak aurkitzen badira edo dagokion txostenaren ondoren. Horretarako, batzorde bat eratuko da Hezkuntza Berriztatzeko, Langileak Kudeatzeko, Unibertsitate Politika eta Koordinazioko eta Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzetako teknikariez osatua; gainera, Hezkuntzako Ikuskaritzako ikuskari bat ere egongo da. Komisioak balizko eransketak, aldaketak eta baliokidetasunak aztertuko ditu eta dagozkion proposamenak egingo dizkio Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzari.

Adierazitakoaren arabera, ordezkapenak egiteko hautagaien zerrendetan sarbidea ematen duten titulazio berriak gehitzeko beharra ikusi da, aipatu Batzordeak titulazio horietako ikasketa-planak eta aipatutako zerrenden zenbait espezialitate emateko egokierari buruzko azterketa egin ostean.

Halaber, Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako eta Hizkuntza Eskola Ofizialetako mailetako hizkuntza-espezialitateen zerrendei dagokienez, non atzerriko hizkuntzetarako Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuak ezartzen duen maila ziurtatzea eskatzen den, honako dekretuaren eranskinaren eguneratzea ematen da: 73/2012 Dekretua, maiatzaren 15ekoa, atzerriko hizkuntzen titulu eta ziurtagiriei buruzkoa Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako ikastetxe publiko eta pribatuetan irakasgaiak edo irakats- arloak atzerriko hizkuntzetan emateko hizkuntza- gaitasunaren betekizunak ezartzen dituena. Eguneratzea Hezkuntzako sailburuaren 2019ko ekainaren 3ko Aginduaren bitartez ematen da. Aipatutako eguneratzeak B2 maila edo goragokoa ziurtatu ezin duten titulu edo ziurtagiriak zerrendatik kentzea eta maila hori egiaztatuta daukaten beste batzuk gehitzea dakar. Gainera, xedapen gehigarri bat gehitzen da, honako ebazpen hau indarrean jarri ondoren aipatutako eranskinak etorkizunean izan ditzakeen eguneratzeak Titulazio eta espezialitateen tauletan aplikatzeko ahalbidetzen duena.

Beraz, horretarako eratutako batzordeak egin beharreko aldaketak ebaluatu eta sindikatuen ordezkariekin negoziatu ostean, honako hau

EBAZTEN DUT:

Honako aldaketa hauek egitea Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko Aginduaren III. «Titulazio eta espezialitateen taulak» eranskinean –agindu horren bidez onartu zen Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetan egon daitezkeen aldi baterako irakasleen beharrak estaltzeko hautagaien zerrenda kudeatzeko araudia–:

– Irakaskuntzako espezialitate jakin batzuk emateko gaitzen duten titulazio berriak gehitzea. Gehitze horiek ebazpen honen I. eranskinean aurreikusten dira.

– 2. kidetasunarekin sartzea ahalbidetzen zituzten tituluak 1. Kidetasunean birkokatzea. Birkokatze hori ebazpen honen II. eranskinean aurreikusten da.

– Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako eta Hizkuntza Eskola Ofizialetako mailetako hizkuntza-espezialitateen zerrendei dagokienez, honako Dekretuaren eranskinaren gaurkotzea gehitzen da: 73/2012 Dekretua, maiatzaren 15ekoa, atzerriko hizkuntzen titulu eta ziurtagiriei buruzkoa Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako ikastetxe publiko eta pribatuetan irakasgaiak edo irakats- arloak atzerriko hizkuntzetan emateko hizkuntza- gaitasunaren betekizunak ezartzen dituena. Gaurkotze hori Hezkuntzako sailburuaren 2019ko ekainaren 3ko Aginduaren bitartez egin zen. Aldaketa hau ebazpen honen III. eranskinean aurreikusten da.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA.– Zerrendetan sartzeko eta haietan mantentzeko baldintzak aldatzea.

Ebazpen hau indarrean sartzean irakasleen ordezkogaien zerrendan dauden hautagaiek dagozkien zerrendei eutsiko diete, baita urtero ematen den birbarematze prozesuen ondoren eratzen diren etorkizuneko zerrendetan ere, ebazpen honek 2012ko abuztuaren 27ko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren Aginduaren III. eranskinean eragiten dituen aldaketak kontutan hartu gabe.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Atzerriko hizkuntzen titulu eta ziurtagiriei buruzkoa Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako ikastetxe publiko eta pribatuetan irakasgaiak edo irakats- arloak atzerriko hizkuntzetan emateko hizkuntza- gaitasunaren betekizunak ezartzen dituen 73/2012 Dekretuaren eranskinaren eguneratzeak.

Maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuaren eranskinaren eguneratzeak ematen direnean honako Ebazpen hau indarrean sartu eta gero, aplikatuko dira ebazpen honen III. eranskinean agertzen diren zerrendetan, atzerriko hizkuntzetarako Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuak ezartzen duen maila ziurtatzea eskatzen denean.

LEHENENGO XEDAPEN IRAGANKORRA.– Zerrendak irekitzeak.

Ebazpen honetan aurreikusten diren aldaketak ez zaizkie berau indarrean sartu aurretik zerrendak irekitzeko deitutako prozedurei aplikatuko.

BIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA.– Zerrendak irekita mantentzea.

Ebazpen honetan aurreikusten diren aldaketak ez zaizkie berau indarrean sartu aurretik zerrendak irekita mantentzeko prozeduretan egiten diren eskaerei aplikatuko.

HIRUGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA.– Zerrendak birbarematze-prozesua.

2020-2021 ikasturterako zerrendak birbarematze-prozesuari aplikatuko zaizkio ebazpen honetan aurreikusten diren aldaketak.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

2020ko irailaren 1etik aurrera ekarriko ditu ondorioak ebazpen honek.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Ebazpen honek ez dio administrazio-bideari amaiera ematen, eta, beraz, ebazpen honen aurka, gorako errekurtsoa jarri ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko martxoaren 2a.

Langileak Kudeatzeko zuzendaria,
JON KARLOS AGUIRRE HUERGA.

# I. ERANSKINA

**BIGARREN HEZKUNTZA ETA LANBIDE-HEZIKETA MAILA**
**KIDEGOA: BIGARREN HEZKUNTZAKO IRAKASLEAK**

- **Euskara Irale (0105) – a) azpiatala 1 Kidetasuna**

Euskal Hizkuntza eta Kultura Gradua gehituko da.

- **Euskara eta Euskal Literatura (0106) – a) azpiatala 1 Kidetasuna**

Euskal Hizkuntza eta Kultura Gradua gehituko da.

- **Informatika (0237) – a) azpiatala 1 Kidetasuna**

Gehituko dira:

Telekomunikazioko ingeniaritza teknikoa, Telematika espezialitatea
Ingeniaritza Elektronikoko Gradua
Telekomunikazio Teknologiaren Ingeniaritza Gradua

- **Marrazketa (0239) – a) azpiatala 1 Kidetasuna**

Gehituko dira:

Sorkuntza eta Diseinuko Gradua
Kultura Ondareen Zaintza eta Zaharberritzeari buruzko Gradua
Eraikuntza Zientzietan eta Teknologietan Gradua

- **Biologia eta Geologia (0255) – a) azpiatala 1 Kidetasuna**

Giza Biologian Gradua gehituko da.

- **Curriculum desberdinak eratzekoa: Soziolinguistika (0986) – a) azpiatala 1 Kidetasuna**

Gehituko dira:

Euskal Hizkuntza eta Kultura Gradua
Kazetaritzako Gradua eta Kazetaritzako Lizentziatura

- **Curriculum desberdinak eratzekoa: Zientzia eta Teknologia (0989) – a) azpiatala 1 Kidetasuna**

Giza Biologian Gradua gehituko da.

- **Elokagaien Industriako Prozesuak (1503) – a) azpiatala 1 Kidetasuna**

Gastronomia eta Sukaldaritza Arteak Gradua gehituko da, honako espezialitateekin:
Punta-puntako Sukaldaritza
Berrikuntza, Negozioa eta Ekintzailetasuna
Elikaduraren Industria

- **Eraikuntza Zibilak eta Etxegintza (1507) – a) azpiatala 1 Kidetasuna**

Eraikuntza Zientzietan eta Teknologietan Gradua gehituko da.

- **Sistema Elektronikoak (1511) – a) azpiatala 1 Kidetasuna**

Ingeniaritza Elektronikoko Gradua gehituko da.

- **Irudi Pertsonaleko Aholkularitza eta Prozesuak (1517) – a) azpiatala 1 Kidetasuna**

Gehituko dira:
Sorkuntza eta Diseinuko Gradua
Kultura Ondareen Zaintza eta Zaharberritzeari buruzko Gradua

- **Analisi eta Kimika Industriala (1518) – a) azpiatala 1 Kidetasuna**

Bioteknologian Gradua gehituko da.

- **Osasun-prozesuak (1519) – a) azpiatala 1 Kidetasuna**

Bioteknologian Gradua gehituko da.

- **Helduen Hizkuntza: Euskara (1583) – a) azpiatala 1 Kidetasuna**

Euskal Hizkuntza eta Kultura Gradua gehituko da.

- **Helduen Hizkuntza: Ezaguera Zientifiko Teknologikoaren Esparrua (1585) – a) azpiatala 1 Kidetasuna**

Giza Bilogian Gradua gehituko da.

- **Helduen Hizkuntza: Gizarte Ezagueraren Esparrua (1586) – a) azpiatala 2 Kidetasuna**

Kazetaritzako Gradua eta Kazetaritzako Lizentziatura gehituko dira.

– **Hizkuntza-Indargarria (1970) – a) azpiatala 1 Kidetasuna**

Gehituko dira:

Euskal Hizkuntza eta Kultura Gradua

Kazetaritzako Gradua eta Kazetaritzako Lizentziatura

**BIGARREN HEZKUNTZA ETA LANBIDE-HEZIKETA MAILA**
**KIDEGOA: LANBIDE HEZIKETAKO IRAKASLE TEKNIKOAK**

– **Eraikuntza-Proektuen Bulegikoa (1547) 1 Kidetasuna**

Eraikuntza Zientzietan eta Teknologietan Gradua gehituko da.

– **Fabrikazio Mekanikoko Proiektuen Bulegoa (1548) 1 Kidetasuna**

Eraikuntza Zientzietan eta Teknologietan Gradua gehituko da.

– **Bero eta Fluido Tresneriaren Instalazioa eta Mantentze Lanak (1549) 1 Kidetasuna**

Eraikuntza Zientzietan eta Teknologietan Gradua gehituko da.

– **Sukaldaritza eta Pastelgintza (1552) – a) azpiatala 1 Kidetasuna**

Gastronomia eta Sukaldaritza Arteak Gradua gehituko da, honako espezialitateekin:

Punta-puntako Sukaldaritza

Berrikuntza, Negozioa eta Ekintzailetasuna

Elikaduraren Industria

– **Jatetxe Arloko Zerbitzuak (1553) – a) azpiatala 1 Kidetasuna**

Gastronomia eta Sukaldaritza Arteak Gradua gehituko da, honako espezialitateekin:

Punta-puntako Sukaldaritza

Berrikuntza, Negozioa eta Ekintzailetasuna

Elikaduraren Industria

**HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZAK MAILA**
**KIDEGOA: HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALEKO IRAKASLEA**

– **Euskara EOI (0753) – a) azpiatala 1 Kidetasuna**

Euskal Hizkuntza eta Kultura Gradua gehituko da.

**ARTE PLASTIKOETAKO ETA DISEINUKO IRAKASKUNTZAKO MAILA**
**KIDEGOA: ARTE PLASTIKOETAKO ETA DISEINUKO IRAKASLEA**

– **Marrazketa Artistikoa eta Kolorea (1607) – a) azpiatala 1 Kidetasuna**

Kultura Ondareen Zaintza eta Zaharberritzeari buruzko Gradua gehituko da.

– **Marrazketa Teknikoa (1608)**

Eraikuntza Zientzietan eta Teknologietan Gradua gehituko da.

- **Bolumena (1625)**

2 Kidetasunarekin gehituko dira:
Sorkuntza eta Diseinuko Gradua
Kultura Ondareen Zaintza eta Zaharberritzeari buruzko Gradua

- **Informatika baliabideak: Barrualdeen Diseinua (1628)**

Eraikuntza Zientzietan eta Teknologietan Gradua gehituko da.

# II. ERANSKINA

**BIGARREN HEZKUNTZA ETA LANBIDE-HEZIKETA MAILA**
**KIDEGOA: BIGARREN HEZKUNTZAKO IRAKASLEAK**

- **Fisika eta Kimika (0202) – a) azpiatala 1 Kidetasuna**

Ingeniaritza Elektronikoko Gradua gehituko da (2. Kidetasunetik 1. Kidetasunera igaroko da)

# III. ERANSKINA

**HAUR HEZKUNTZA ETA LEHEN HEZKUNTZA**

**KIDEGOA: MAISU-MAISTRAK**

| | |
|---|---|
| ATZERRIKO HIZKUNTZA:<br>INGELESA<br>954 | - Maisu-maistraren titulua, Atzerriko Hizkuntzako (Ingelesa) espezialitatea (1440/1991 ED).<br><br>- Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasle diplomatura titulua, Ingeles Filologiako espezialitatea.<br><br>- Maisu-maistraren titulua edo Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasle diplomatura titulua + Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko Ingeleseko C1 maila edo goragokoa, maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuko eranskinaren arabera (EHAA, 2012-05-29), Hezkuntza sailburuaren 2019ko ekainaren 3ko Aginduak eguneratutakoa (EHAA, 2019-06-10).<br><br>- Maisu-maistraren titulua edo Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasle diplomatura titulua + Lizentziatura Ingeles Filologian edo Gradua Ingeles Ikasketetan, Hizkuntza Modernoetan (Ingeles Ikasketak) edo Lizentziatura, Diplomatura edo Gradua Itzulpengintzan eta Interpretazioan (B hizkuntza = Ingelesa).<br><br>- Gradua Lehen Hezkuntzan, aipamena edo ibilbidea atzerriko hizkuntzan (Ingelesa) + Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko Ingeleseko B2 maila edo goragokoa, maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuko eranskinaren arabera (EHAA, 2012-05-29), Hezkuntza sailburuaren 2019ko ekainaren 3ko Aginduak eguneratutakoa (EHAA, 2019-06-10).<br><br>- Gradua Lehen Hezkuntzan + Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko Ingeleseko C1 maila edo goragokoa, maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuko eranskinaren arabera (EHAA, 2012-05-29), Hezkuntza sailburuaren 2019ko ekainaren 3ko Aginduak eguneratutakoa (EHAA, 2019-06-10).<br><br>- Gradua Lehen Hezkuntzan + Lizentziatura Ingeles Filologian edo Gradua Ingeles Ikasketetan, Hizkuntza Modernoetan (Ingeles Ikasketak) edo Lizentziatura, Diplomatura edo Gradua Itzulpengintzan eta Interpretazioan (B hizkuntza = Ingelesa). |

| | |
|---|---|
| ATZERRIKO HIZKUNTZA:<br>FRANTSESA<br>955 | - Maisu-maistraren titulua, Atzerriko Hizkuntzako (Frantsesa) espezialitatea (1440/1991 ED).<br><br>- Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasle diplomatura titulua, Frantses Filologiako espezialitatea.<br><br>- Maisu-maistraren titulua edo Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasle diplomatura titulua + Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko Frantsesezko C1 maila edo goragokoa, maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuko eranskinaren arabera (EHAA, 2012-05-29), Hezkuntza sailburuaren 2019ko ekainaren 3ko Aginduak eguneratutakoa (EHAA, 2019-06-10).<br><br>- Maisu-maistraren edo Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasle diplomatura titulua + Lizentziatura Frantses Filologian edo Gradua Frantses Hizkuntzako Filologian edo Lizentziatura, Diplomatura edo Gradua Itzulpengintzan eta Interpretazioan (B hizkuntza = Frantsesa).<br><br>- Gradua Lehen Hezkuntzan, aipamena edo ibilbidea atzerriko hizkuntzan (Frantsesa) + Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko Frantsesezko B2 maila edo goragokoa, maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuko eranskinaren arabera (EHAA, 2012-05-29), Hezkuntza sailburuaren 2019ko ekainaren 3ko Aginduak eguneratutakoa (EHAA, 2019-06-10).<br><br>- Gradua Lehen Hezkuntzan + Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko Frantsesezko C1 maila edo goragokoa, maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuko eranskinaren arabera (EHAA, 2012-05-29), Hezkuntza sailburuaren 2019ko ekainaren 3ko Aginduak eguneratutakoa (EHAA, 2019-06-10).<br><br>- Gradua Lehen Hezkuntzan + Lizentziatura Frantses Filologian edo Gradua Frantses Hizkuntzako Filologian edo Lizentziatura, Diplomatura edo Gradua Itzulpengintzan eta Interpretazioan (B hizkuntza = Frantsesa). |

**BIGARREN HEZKUNTZA ETA LANBIDE HEZIKETA**

**KIDEGOA: BIGARREN HEZKUNTZAKO IRAKASLEAK**

| | |
|---|---|
| FRANTSESA<br>0102 | a) 1. kidetasuna<br><br>Lizentziaduna:<br>- Frantses Filologia<br>- Itzulpengintza eta Interpretazioa (B hizkuntza = Frantsesa)<br><br>- Gradua Filologian (Frantsesa), Gradua Hizkuntza Modernoetan (Frantsesa), Gradua Ikasketa Frantsesetan, Gradua Itzulpengintzan eta Interpretazioan (B hizkuntza = Frantsesa), Gradua Frantseseko eta Gaztelaniako Ikasketetan, Gradua Ingeleseko eta Frantseseko Ikasketetan. |
| | b) 2. kidetasuna<br><br>Lizentziaduna:<br>- Filologia + Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko Frantsesezko B2 maila edo goragokoa, maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuko eranskinaren arabera (EHAA, 2012-05-29), Hezkuntza sailburuaren 2019ko ekainaren 3ko Aginduak eguneratutakoa (EHAA, 2019-06-10).<br><br>- Itzulpengintza eta Interpretazioa (C hizkuntza = Frantsesa)<br><br>- Hizkuntzalaritza + Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko Frantsesezko B2 maila edo goragokoa, maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuko eranskinaren arabera (EHAA, 2012-05-29), Hezkuntza sailburuaren 2019ko ekainaren 3ko Aginduak eguneratutakoa (EHAA, 2019-06-10).<br><br>- Itzulpengintza eta Interpretazioa + Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko Frantsesezko B2 maila edo goragokoa. Maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuko eranskinaren arabera (EHAA, 2012-05-29), Hezkuntza sailburuaren 2019ko ekainaren 3ko Aginduak eguneratutakoa (EHAA, 2019-06-10).<br><br>- Gradua Filologian (frantsesa izan ezik) edo Gradua beste Hizkuntza batzuen Ikasketetan edo Gradua Hizkuntza Modernoetan (beste aipamen edo ibilbideak) Gradua Hizkuntza Modernoetan eta Kudeaketan edo Gradua Itzulpengintza eta Interpretazioan + Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko Frantsesezko B2 maila edo goragokoa. Maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuko eranskinaren arabera (EHAA, 2012-05-29), Hezkuntza sailburuaren 2019ko ekainaren 3ko Aginduak eguneratutakoa (EHAA, 2019-06-10).<br><br>- Gradua Itzulpengintzan eta Interpretazioan (C hizkuntza = Frantsesa). |
| | c) Unibertsitateko Titulu Ofizialen Katalogoan aurrekoen baliokideak diren tituluak. |

| | | |
|---|---|---|
| INGELESA<br>0103 | a) 1. kidetasuna<br><br>Lizentziaduna:<br>- Ingeles Filologia<br>- Itzulpengintza eta Interpretazioa (B hizkuntza = Ingelesa)<br><br>- Gradua Ingeles Ikasketetan, Gradua Hizkuntza Modernoetan (Ingelesa), Gradua Itzulpengintzan eta Interpretazioan (B hizkuntza = Ingelesa), Gradua Ingeleseko eta Frantseseko Ikasketetan. |
| | b) 2. kidetasuna<br><br>Lizentziaduna:<br>- Filologia + Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko Ingelesezko B2 maila edo goragokoa, maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuko eranskinaren arabera (EHAA, 2012-05-29), Hezkuntza sailburuaren 2019ko ekainaren 3ko Aginduak eguneratutakoa (EHAA, 2019-06-10).<br><br>- Itzulpengintza eta Interpretazioa (C hizkuntza = Ingelesa).<br><br>- Hizkuntzalaritza + Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko Ingelesezko B2 maila edo goragokoa, maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuko eranskinaren arabera (EHAA, 2012-05-29), Hezkuntza sailburuaren 2019ko ekainaren 3ko Aginduak eguneratutakoa (EHAA, 2019-06-10).<br><br>- Itzulpengintza eta Interpretazioa + Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko Ingelesezko B2 maila edo goragokoa, maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuko eranskinaren arabera (EHAA, 2012-05-29), Hezkuntza sailburuaren 2019ko ekainaren 3ko Aginduak eguneratutakoa (EHAA, 2019-06-10).<br><br>- Gradua Filologian edo Gradua beste Hizkuntza batzuen Ikasketetan edo Gradua Hizkuntza Modernoetan (beste aipamen edo ibilbideak) edo Gradua Hizkuntza Modernoetan eta Kudeaketan edo Gradua Itzulpengintza eta Interpretazioan + Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko Ingelesezko B2 maila edo goragokoa maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuko eranskinaren arabera (EHAA, 2012-05-29), Hezkuntza sailburuaren 2019ko ekainaren 3ko Aginduak eguneratutakoa (EHAA, 2019-06-10).<br><br>- Gradua Itzulpengintzan eta Interpretazioan (C hizkuntza = Ingelesa). |
| | c) Unibertsitateko Titulu Ofizialen Katalogoan aurrekoen baliokideak diren tituluak. |

| | |
|---|---|
| ALEMANA<br>0104 | <u>a) 1. kidetasuna</u><br><br>Lizentziaduna:<br>- Aleman Filologia.<br>- Itzulpengintza eta Interpretazioa (B hizkuntza = Alemana).<br><br>- Gradua Filologian (Alemana), Gradua Hizkuntza Modernoetan (Alemana), Gradua Alemaniar Ikasketetan edo Gradua Itzulpengintzan eta Interpretazioan (B hizkuntza = Alemana). |
| | <u>b) 2. kidetasuna</u><br><br>Lizentziaduna:<br>- Filologia + Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko Alemanezko B2 maila edo goragokoa, maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuko eranskinaren arabera (EHAA, 2012-05-29), Hezkuntza sailburuaren 2019ko ekainaren 3ko Aginduak eguneratutakoa (EHAA, 2019-06-10).<br><br>- Itzulpengintza eta Interpretazioa (C hizkuntza = Alemana).<br><br>- Hizkuntzalaritza + Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko Alemanezko B2 maila edo goragokoa, maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuko eranskinaren arabera (EHAA, 2012-05-29), Hezkuntza sailburuaren 2019ko ekainaren 3ko Aginduak eguneratutakoa (EHAA, 2019-06-10).<br><br>- Itzulpengintza eta Interpretazioa + Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko Alemanezko B2 maila edo goragokoa, maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuko eranskinaren arabera (EHAA, 2012-05-29), Hezkuntza sailburuaren 2019ko ekainaren 3ko Aginduak eguneratutakoa (EHAA, 2019-06-10).<br><br>- Gradua Filologian (Alemana izan ezik) edo Gradua beste Hizkuntza batzuen Ikasketetan edo Gradua Hizkuntza Modernoetan (beste aipamen edo ibilbideak) Gradua Hizkuntza Modernoetan eta Kudeaketan edo Gradua Itzulpengintza eta Interpretazioan + Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko Alemanezko B2 maila edo goragokoa, maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuko eranskinaren arabera (EHAA, 2012-05-29), Hezkuntza sailburuaren 2019ko ekainaren 3ko Aginduak eguneratutakoa (EHAA, 2019-06-10).<br><br>- Gradua Itzulpengintzan eta Interpretazioan (C hizkuntza = Alemana). |
| | c) Unibertsitateko Titulu Ofizialen Katalogoan aurrekoen baliokideak diren tituluak. |

| | |
|---|---|
| HELDUEN HEZKUNTZA:<br>INGELESA<br>1582 | <u>a) 1. kidetasuna</u><br><br>Lizentziaduna:<br>- Ingeles Filologia<br>- Itzulpengintza eta Interpretazioa (B hizkuntza = Ingelesa)<br><br>- Gradua Ingeles Ikasketetan, Gradua Hizkuntza Modernoetan (Ingelesa) edo Gradua Itzulpengintzan eta Interpretazioan (B hizkuntza = Ingelesa). |
| | <u>b) 2. kidetasuna</u><br><br>Lizentziaduna:<br>- Filologia + Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko Ingelesezko B2 maila edo goragokoa, maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuko eranskinaren arabera (EHAA, 2012-05-29), Hezkuntza sailburuaren 2019ko ekainaren 3ko Aginduak eguneratutakoa (EHAA, 2019-06-10).<br><br>- Itzulpengintza eta Interpretazioa (C hizkuntza = Ingelesa)<br><br>- Hizkuntzalaritza + Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko Ingelesezko B2 maila edo goragokoa, maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuko eranskinaren arabera (EHAA, 2012-05-29), Hezkuntza sailburuaren 2019ko ekainaren 3ko Aginduak eguneratutakoa (EHAA, 2019-06-10).<br><br>- Itzulpengintza eta Interpretazioa + Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko Ingelesezko B2 maila edo goragokoa, maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuko eranskinaren arabera (EHAA, 2012-05-29), Hezkuntza sailburuaren 2019ko ekainaren 3ko Aginduak eguneratutakoa (EHAA, 2019-06-10).<br><br>- Gradua Filologian edo Gradua beste Hizkuntza batzuen Ikasketetan edo Gradua Hizkuntza Modernoetan (beste aipamen edo ibilbideak) edo Gradua Hizkuntza Modernoetan eta Kudeaketan edo Gradua Itzulpengintza eta Interpretazioan + Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko Ingelesezko B2 maila edo goragokoa, maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuko eranskinaren arabera (EHAA, 2012-05-29), Hezkuntza sailburuaren 2019ko ekainaren 3ko Aginduak eguneratutakoa (EHAA, 2019-06-10).<br><br>- Gradua Itzulpengintzan eta Interpretazioan (C hizkuntza = Ingelesa). |
| | c) Unibertsitateko Titulu Ofizialen Katalogoan aurrekoen baliokideak diren tituluak. |

| | |
|---|---|
| HELDUEN HEZKUNTZA:<br>FRANTSESA<br>1584 | a) 1. kidetasuna<br><br>Lizentziaduna:<br>- Frantses Filologia<br>- Itzulpengintza eta Interpretazioa (B hizkuntza = Frantsesa)<br><br>- Gradua Filologian (Frantsesa), Gradua Hizkuntza Modernoetan (Frantsesa), Gradua Ikasketa Frantsesetan edo Gradua Itzulpengintzan eta Interpretazioan (B hizkuntza = Frantsesa). |
| | b) 2. kidetasuna<br><br>Lizentziaduna:<br>- Filologia + Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko Frantsesezko B2 maila edo goragokoa, maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuko eranskinaren arabera (EHAA, 2012-05-29), Hezkuntza sailburuaren 2019ko ekainaren 3ko Aginduak eguneratutakoa (EHAA, 2019-06-10).<br><br>- Itzulpengintza eta Interpretazioa (C hizkuntza = Frantsesa)<br><br>- Hizkuntzalaritza + Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko Frantsesezko B2 maila edo goragokoa, maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuko eranskinaren arabera (EHAA, 2012-05-29), Hezkuntza sailburuaren 2019ko ekainaren 3ko Aginduak eguneratutakoa (EHAA, 2019-06-10).<br><br>- Itzulpengintza eta Interpretazioa + Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko Frantsesezko B2 maila edo goragokoa, maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuko eranskinaren arabera (EHAA, 2012-05-29), Hezkuntza sailburuaren 2019ko ekainaren 3ko Aginduak eguneratutakoa (EHAA, 2019-06-10).<br><br>- Gradua Filologian (frantsesa izan ezik) edo Gradua beste Hizkuntza batzuen Ikasketetan edo Gradua Hizkuntza Modernoetan (beste aipamen edo ibilbideak) Gradua Hizkuntza Modernoetan eta Kudeaketan edo Gradua Itzulpengintza eta Interpretazioan + Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko Frantsesezko B2 maila edo goragokoa, maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuko eranskinaren arabera (EHAA, 2012-05-29), Hezkuntza sailburuaren 2019ko ekainaren 3ko Aginduak eguneratutakoa (EHAA, 2019-06-10).<br><br>- Gradua Itzulpengintzan eta Interpretazioan (C hizkuntza = Frantsesa). |
| | c) Unibertsitateko Titulu Ofizialen Katalogoan aurrekoen baliokideak diren tituluak. |

**HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZAK**

**HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALEKO IRAKASLEEN KIDEGOA**

| | |
|---|---|
| INGELESA<br>0750 | a) 1. kidetasuna:<br>Lizentziaduna honako hauetan:<br>- Ingeles Filologia<br>- Filologia (beste batzuk) + Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko Ingelesezko C2 maila, maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuko eranskinaren arabera (EHAA, 2012-05-29), Hezkuntza sailburuaren 2019ko ekainaren 3ko Aginduak eguneratutakoa (EHAA, 2019-06-10).<br>- Hizkuntzalaritza + Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko Ingelesezko C2 maila, maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuko eranskinaren arabera (EHAA, 2012-05-29), Hezkuntza sailburuaren 2019ko ekainaren 3ko Aginduak eguneratutakoa (EHAA, 2019-06-10).<br>- Itzulpengintza eta Interpretazioa (B hizkuntza = Ingelesa).<br>- Itzulpengintza eta Interpretazioa (beste batzuk) + Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko Ingelesezko C2 maila, maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuko eranskinaren arabera (EHAA, 2012-05-29), Hezkuntza sailburuaren 2019ko ekainaren 3ko Aginduak eguneratutakoa (EHAA, 2019-06-10).<br>- Gradua Ingeles Filologian, Gradua Ingeles Ikasketetan, Gradua Hizkuntza Modernoetan (Ingelesa) edo Gradua Itzulpengintzan eta Interpretazioan (B hizkuntza = Ingelesa).<br>- Gradua Filologian (beste batzuk) edo Gradua beste Hizkuntza batzuen Ikasketetan edo Gradua Hizkuntza Modernoetan (beste aipamen edo ibilbide batzuk) edo Gradua Hizkuntza Modernoetan eta Kudeaketan edo Gradua Itzulpengintza eta Interpretazioan (beste batzuk) + Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko Ingelesezko C2 maila, maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuko eranskinaren arabera (EHAA, 2012-05-29), Hezkuntza sailburuaren 2019ko ekainaren 3ko Aginduak eguneratutakoa (EHAA, 2019-06-10). |
| | b) 2. kidetasuna<br>Lizentziaduna honako hauetan:<br>- Filologia (beste batzuk) + Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko Ingelesezko C1 maila edo goragokoa, maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuko eranskinaren arabera (EHAA, 2012-05-29), Hezkuntza sailburuaren 2019ko ekainaren 3ko Aginduak eguneratutakoa (EHAA, 2019-06-10).<br>- Hizkuntzalaritza + Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko Ingelesezko C1 maila edo goragokoa, maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuko eranskinaren arabera (EHAA, 2012-05-29), Hezkuntza sailburuaren 2019ko ekainaren 3ko Aginduak eguneratutakoa (EHAA, 2019-06-10).<br>- Itzulpengintza eta Interpretazioa (beste batzuk) + Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko Ingelesezko C1 maila edo goragokoa, maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuko eranskinaren arabera (EHAA, 2012-05-29), Hezkuntza sailburuaren 2019ko ekainaren 3ko Aginduak eguneratutakoa (EHAA, 2019-06-10).<br>- Gradua Filologian (beste batzuk) edo Gradua beste Hizkuntza batzuen Ikasketetan edo Gradua Hizkuntza Modernoetan (beste aipamen edo ibilbide batzuk) edo Gradua Hizkuntza Modernoetan eta Kudeaketan edo Gradua Itzulpengintza eta Interpretazioan (beste batzuk) + Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko Ingelesezko C1 maila edo goragokoa, maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuko eranskinaren arabera (EHAA, 2012-05-29), Hezkuntza sailburuaren 2019ko ekainaren 3ko Aginduak eguneratutakoa (EHAA, 2019-06-10). |
| | c) Unibertsitateko Titulu Ofizialen Katalogoan aurrekoen baliokideak diren tituluak. |

| | |
|---|---|
| FRANTSESA<br>0751 | a) 1. kidetasuna:<br><br>Lizentziaduna honako hauetan:<br>- Frantses Filologia<br><br>- Filologia (beste batzuk) + Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko Frantsesezko C2 maila, maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuko eranskinaren arabera (EHAA, 2012-05-29), Hezkuntza sailburuaren 2019ko ekainaren 3ko Aginduak eguneratutakoa (EHAA, 2019-06-10).<br><br>- Hizkuntzalaritza + Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko Frantsesezko C2 maila, maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuko eranskinaren arabera (EHAA, 2012-05-29), Hezkuntza sailburuaren 2019ko ekainaren 3ko Aginduak eguneratutakoa (EHAA, 2019-06-10).<br><br>- Itzulpengintza eta Interpretazioa (B hizkuntza = Frantsesa)<br><br>- Itzulpengintza eta Interpretazioa (beste batzuk) + Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko Frantsesezko C2 maila, maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuko eranskinaren arabera (EHAA, 2012-05-29), Hezkuntza sailburuaren 2019ko ekainaren 3ko Aginduak eguneratutakoa (EHAA, 2019-06-10).<br><br>- Gradua Filologian (Frantsesa), Gradua Hizkuntza Modernoetan (Frantsesa), Gradua Ikasketa Frantsesetan edo Gradua Itzulpengintza eta Interpretazioa (B hizkuntza = Frantsesa).<br><br>- Gradua Filologian (beste batzuk) edo Gradua beste Hizkuntza batzuen Ikasketetan edo Gradua Hizkuntza Modernoetan (beste aipamen edo ibilbideak) edo Gradua Hizkuntza Modernoetan eta Kudeaketan edo Gradua Itzulpengintza eta Interpretazioan (beste batzuk) + Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko Frantsesezko C2 maila, maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuko eranskinaren arabera (EHAA, 2012-05-29), Hezkuntza sailburuaren 2019ko ekainaren 3ko Aginduak eguneratutakoa (EHAA, 2019-06-10). |
| | b) 2. kidetasuna<br><br>Lizentziaduna honako hauetan:<br>- Filologia (beste batzuk) + Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko Frantsesezko C1 maila edo goragokoa, maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuko eranskinaren arabera (EHAA, 2012-05-29), Hezkuntza sailburuaren 2019ko ekainaren 3ko Aginduak eguneratutakoa (EHAA, 2019-06-10).<br><br>- Hizkuntzalaritza + Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko Frantsesezko C1 maila edo goragokoa, maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuko eranskinaren arabera (EHAA, 2012-05-29), Hezkuntza sailburuaren 2019ko ekainaren 3ko Aginduak eguneratutakoa (EHAA, 2019-06-10).<br><br>- Itzulpengintza eta Interpretazioa (beste batzuk) + Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko Frantsesezko C1 maila edo goragokoa, maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuko eranskinaren arabera (EHAA, 2012-05-29), Hezkuntza sailburuaren 2019ko ekainaren 3ko Aginduak eguneratutakoa (EHAA, 2019-06-10).<br><br>- Gradua Filologian (beste batzuk) edo Gradua beste Hizkuntza batzuen Ikasketetan edo Gradua Hizkuntza Modernoetan (beste aipamen edo ibilbide batzuk) edo Gradua Hizkuntza Modernoetan eta Kudeaketan edo Gradua Itzulpengintza eta Interpretazioan (beste batzuk) + Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko Frantsesezko C1 maila edo goragokoa, maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuko eranskinaren arabera (EHAA, 2012-05-29), Hezkuntza sailburuaren 2019ko ekainaren 3ko Aginduak eguneratutakoa (EHAA, 2019-06-10). |
| | c) Unibertsitateko Titulu Ofizialen Katalogoan aurrekoen baliokideak diren tituluak. |

| | |
|---|---|
| ALEMANA<br>0752 | a) 1. kidetasuna:<br>Lizentziaduna honako hauetan:<br>- Aleman Filologia<br>- Filologia (beste batzuk) + Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko Alemanezko C2 maila, maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuko eranskinaren arabera (EHAA, 2012-05-29), Hezkuntza sailburuaren 2019ko ekainaren 3ko Aginduak eguneratutakoa (EHAA, 2019-06-10).<br>- Hizkuntzalaritza + Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko Alemanezko C2 maila, maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuko eranskinaren arabera (EHAA, 2012-05-29), Hezkuntza sailburuaren 2019ko ekainaren 3ko Aginduak eguneratutakoa (EHAA, 2019-06-10).<br>- Itzulpengintza eta Interpretazioa (B hizkuntza = Alemana)<br>- Itzulpengintza eta Interpretazioa (beste batzuk) + Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko Alemanezko C2 maila, maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuko eranskinaren arabera (EHAA, 2012-05-29), Hezkuntza sailburuaren 2019ko ekainaren 3ko Aginduak eguneratutakoa (EHAA, 2019-06-10).<br>- Gradua Filologian (Alemana), Gradua Hizkuntza Modernoetan (Alemana), Gradua Ikasketa Alemanetan edo Gradua Itzulpengintza eta Interpretazioan (B hizkuntza = Alemana).<br>- Gradua Filologian (beste batzuk) edo Gradua beste Hizkuntza batzuen Ikasketetan edo Gradua Hizkuntza Modernoetan (beste aipamen edo ibilbide batzuk) edo Gradua Hizkuntza Modernoetan eta Kudeaketan edo Gradua Itzulpengintza eta Interpretazioan (beste batzuk) + Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko Alemanezko C2 maila, maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuko eranskinaren arabera (EHAA, 2012-05-29), Hezkuntza sailburuaren 2019ko ekainaren 3ko Aginduak eguneratutakoa (EHAA, 2019-06-10). |
| | b) 2. kidetasuna:<br>Lizentziaduna honako hauetan:<br>- Filologia (beste batzuk) + Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko Alemanezko C1 maila edo goragokoa, maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuko eranskinaren arabera (EHAA, 2012-05-29), Hezkuntza sailburuaren 2019ko ekainaren 3ko Aginduak eguneratutakoa (EHAA, 2019-06-10).<br>- Hizkuntzalaritza + Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko Alemanezko C1 maila edo goragokoa, maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuko eranskinaren arabera (EHAA, 2012-05-29), Hezkuntza sailburuaren 2019ko ekainaren 3ko Aginduak eguneratutakoa (EHAA, 2019-06-10).<br>- Itzulpengintza eta Interpretazioa (beste batzuk) + Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko Alemanezko C1 maila edo goragokoa, maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuko eranskinaren arabera (EHAA, 2012-05-29), Hezkuntza sailburuaren 2019ko ekainaren 3ko Aginduak eguneratutakoa (EHAA, 2019-06-10).<br>- Gradua Filologian (beste batzuk) edo Gradua beste Hizkuntza batzuen Ikasketetan edo Gradua Hizkuntza Modernoetan (beste aipamen edo ibilbide batzuk) edo Gradua Hizkuntza Modernoetan eta Kudeaketan edo Gradua Itzulpengintza eta Interpretazioan (beste batzuk) + Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko Alemanezko C1 maila edo goragokoa, maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuko eranskinaren arabera (EHAA, 2012-05-29), Hezkuntza sailburuaren 2019ko ekainaren 3ko Aginduak eguneratutakoa (EHAA, 2019-06-10). |
| | c) Unibertsitateko Titulu Ofizialen Katalogoan aurrekoen baliokideak diren tituluak. |